

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mikel Zalbide Elustondo

*Donostia,
Gipuzkoa
(1951)*

Aurkibidea



Biografia



Aieten jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Bi anaietan zaharrena. Euskara zen hizkuntza nagusia familian eta auzoan. Zortzi urte zituenean, familia Parte Zaharrera (ensantxera, Euskal Herria kalera) joan zen bizitzera. Kolegio Alemanean egin zituen Batxilergoa bukatu bitarteko ikasketak, eta ondoren Ingeniaritza ikasi zuen. Garai horretan euskara klaseak ematen hasi zen, eta baita euskarazko terminologia sortzen ere, zientziaren alorrean hutsune handia zegoelako. Elhuyar taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta ikastoletarako ikasmateriala sortzen ere aritu zen, besteak beste. 1978an UZEIn hasi zen lanean, hiztegigintzan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailean Euskara Zerbitzuaren arduradun izan zen urte askoan (1981-2014). Euskaltzain urgazlea da 1983tik eta osoa 2006tik; hainbat lan egin ditu Euskaltzaindian. Hizkuntzalaria eta soziolinguista da. Euskal unibertsitatea sortzeko prozesuaz, EGA tituluaz eta beste hainbat kontuz hitz egin genuen berarekin, San Telmo museoan egin genion elkarrizketan.

Zintak

DON-214

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-11-03
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

DON-215

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-11-03
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gurasoen jatorria; garai bateko Aiete

- **Erref:** DON-214/002
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:02:41. **Bukatu:** 00:07:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Ama bizi du, baina aita aspaldi hil zen. Aitaren aita Donostiako Inpernukoa; arraunean eraman omen zuten bataiatzera San Bizentera. Aitaren ama Lazkaokoa. Amaren aldeko familia, berriz, Beizamakoa. Aitona astean behin Hernanira joaten zen feriara. Garai hartan mundua Urnietan bukatzen zela uste zuen. Aieteko baserri giroa. Gizonak Munto sagardotegian; emazteak igandeetan arropa garbia eramatera, mezara joateko. Udan Mairu Guardia egoten zen Francoren jauregia zaintzen. Ama Aieteko Indianoenean (garai batean Oianeder) jaio zen. Ezkondu ostean non bizi izan ziren gurasoak.

2. Etxean ez zen entzuten gaztelaniarik

- **Erref:** DON-214/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitonak ez zekien gaztelaniaz, maldizioak esaten bakarrik. Amonak bai, Bretxara joaten zelako "tratuan egitera". Garai baten gaiek ez zuten prezio finkorik, orduaren edo pertsonaren arabera alda zitekeen. Etxean ez zen gaztelaniarik entzuten.

3. Aieteko auzo-giro euskalduna; txoriak harrapatzen

- **Erref:** DON-214/006
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aitona-amonen baserriaren ondoan zegoen beraien etxea eta harreman handia zuten haiekin. Ondoko etxe baten ere senideak bizi ziren eta batez ere lehengusu batekin harreman handia zuen. Txoriak harrapatzen erakutsi zion. Uztaia jartzen zieten txoriei, nora joaten ziren jakiteko. Aieteko auzo-giroa, euskalduna. Gero, kanpotik jendea etortzen hasi zen. Gogoan du etxez etxe ile-apaintzaile lanetan hasi zen Extremadurako gizona.

4. Mairu Guardia Francoren jauregia zaintzen

- **Erref:** DON-214/007
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:16:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Udan Franco Donostiara etortzen zenean, Mairu Guardia egoten zen haren jauregia zaintzen. Umea zen artean, eta ez zen konturatzen Francoren etorrerak zer suposatzen zuen, baina etxean entzuten zituen zenbait kontu eta gerora hasi zen loturak egiten.

5. Bera kolegio alemanera bidaltzeko arrazoiak

- **Erref:** DON-214/008
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:16:37. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Aitak ezin zituen frankistak begien bistan ikusi eta multzo berean sartzen zituen apaizak eta mojak. Hori dela eta, kolegio alemanera bidali zituen. Gainera, merkea zen, publikoa zelako, Alemaniako estatuak ordaindua. Kolegio alemana I. Mundu Gerra ostean Alemaniatik etorri zirenen seme-alabentzat sortu zen. Ama hizkuntza euskara zuen eta kolegioan alemana ikasi zuen umetatik. Ikaskideekin eta kalean gaztelaniaz ere bai. Eskolatik bi aldiz trukeak egin zituzten Alemaniako umeekin.

6. Euskararen guneak Donostian

- **Erref:** DON-214/010
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:26:36

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Euskara » Euskararen egoera
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Donostian guneen arabera entzuten zen euskara edo gaztelania. Bretxan, esaterako, euskara asko entzuten zen baserritarrak biltzen zirelako eta harakinak ere asko euskaldunak zirelako. Arrain-saltzaileak. Pasaiatik etortzen ziren arrantzaleen emazteak. Tabernetan ere euskara entzuten zen, kasu askotan bai nagusia eta bai zerbitzari lanetan aritzen ziren neska gazteak Gipuzkoako herri txikietatik etorriak izaten ziren eta. Añorgan, Aieten, Igeldon... ere euskaraz egiten zen. "Ixkiña"n eta "Jose Mari"n elkartzen ziren baserritar asko; apustu-giroa.

7. Euskararik ez kolegio alemanean

- **Erref:** DON-214/011
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:31:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Euskararen kontrako iruzkinik ez zuen entzun izan. Aitak ez zekienari ikasteko esaten zion. Kolegio alemanean bertakoak ziren irakasleek ez zuten euskaraz egiten, jakin arren. Ikaskideak familia erdaldunetakoak ziren. Irakasle alemanek ez zekiten euskaraz, baina ez zuten euskararen aurkako hitzik esaten, ikuspegi irekiagoa zuten. Latina eta ingelesa ere ikasten zituzten kolegioan. Latinari garrantzia ematen zioten, iturri klasikoei garrantzia ematen zirelako. Geografia ikasterakoan, hurbilekotik hasten ziren eta gertuko lekuen berri ikasten zuten, baina alemanez.

8. Garai bateko nesken heziketa

- **Erref:** DON-214/012
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Aieteko ume asko fraide eta moja eskoletara joango ziren. Neskak gero Donostiako akademietara joaten ziren, josten ikastera. Orduko ustearen arabera, neskek oinarritzko lau gauza eta etxeakoandre izateko gauzak ikasi behar zituzten.

9. Gizarte-klase altu samarreko euskaltzaleen garrantzia

- **Erref:** DON-214/013
- **Iraupena:** 0:06:08. **Hasi:** 00:32:47. **Bukatu:** 00:38:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Donostiak tradizio handia izan du kultura kontuetan XIX. mendeko azken herenetik. Gerraostean ere baziren erdi-go mailako euskaldunak (mediku, ingeniari...): Carlos Santamaria, Zumalabe... Garrantzitsua zen euskaltzale horien lana, askotan beraiek zeudelako kultura-mugimenduen atzean, esaterako, ikastolen sorreran. Maria Dolores Agirrek antzerkia egiten zuen eta euskara klaseak eman ere bai. Bilbotik jendea etortzen omen zitzaion euskara ikastera. Mitxelena, Nemesio Etxaniz... lan handia egin zuten euskara klaseak ematen.

10. 14 urterekin euskaraz idazteko ezintasuna

- **Erref:** DON-214/014
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:38:55. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

14 urte zituela, uda batean Benasquera joan zen, kanpamendura. Etxekoei postal bat bidali nahi zien Anetora igo zirela esanez, baina ez zekien euskaraz idazten. Hura izan zen berarentzat euskara idatziarekiko lehen kontaktua.

11. Euskaraz mintzatu, baina irakurri eta idatzi ez

- **Erref:** DON-214/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:42:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Pixkanaka joan zen euskaltzaletzen, oharkabeen. Konturatzen zen beste batzuek hizkuntza bakarra zekitela eta berak asko. Etxean euskararen aldeko jarrera ikusten zuen. Euskaraz mintzatu bai, baina irakurri eta idatzi ez. Zeruko Argiarekin hasi ziren euskaraz irakurtzen.

12. Ingeniaritza ikasten ari zela, euskara irakasten hasi zen

- **Erref:** DON-214/016
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:42:09. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Ingeniaritza ikasketak egiten hasi zenean, euskaraz ikasi nahi zuen jendea zegoela eta klaseen aurretik euskara-eskolak emateko animatu zuten. "Euskera hire laguna" liburuarekin hasi ziren. Euskal gramatikaz ez zekien ezer eta ikasleen zalantzak argitzeko nahikoa lan. Euskara irakastea izan zen berarentzat eskolarik onena.

13. Pixkanaka euskal giroa ezagutzen

- **Erref:** DON-214/017
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:50:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Kultur aste bat antolatu behar zutela eta berari eskatu zioten aurkezpena egiteko. Etxamendi eta Larralde eta Labeguerie aita-semeak etorri ziren. Ez zituen ezagutzen. Handik gutxira Xabier Letek Kresala-n eman zuen hitzaldi batera joan zen eta apunteak hartzen aritu zen, euskaraz. Halako kontuei esker eta Zeruko Argia irakurriz joan zen euskal giroa ezagutzen eta euskaltzaletzen. Euskara batuaren sorrera. Orduan konturatu zen euskalki desberdinak zeudela.

14. Espeleologia taldekoei euskara irakasten zien San Telmon

- **Erref:** DON-214/018
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:50:48. **Bukatu:** 00:53:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikaskide batek animatuta Aranzadiko kide egin zen eta espeleologian ibiltzen zen. Taldekideei euskara klaseak ematen aritu zen, San Telmo museoan materiala gordetzeko zuten lokalean. San Telmoko sarreran atezaina egoten zen, pistola eta guzti. Barandiaran eta Jesus Altuna ezagutu zituen garai hartan. Aranzadin, euskaltzaleak eta natura zaleak.

15. Elhuyar-en sorrera; fisikaren inguruko lehen liburua

- **Erref:** DON-214/019
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:53:17. **Bukatu:** 00:58:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ingeniaritza eskolan zebilela, ikasten ari zirena euskaraz nola esango litzatekeen pentsatzen hasi ziren. Horren harira, ikasle batzuk eta jada ikasketak amaituta zituzten Andoni Sagarna eta Luis Bandres larunbatero jesuiten "Colegio San Ignacio"n batzen ziren. Lokala uzten zieten jesuitek. Arzallus jesuita zegoen tartean, EUTGn arte irakasle zena. Horrela sortu zen Elhuyar. Hasieran ez zuten izenik. 1976 inguruan fisikaren inguruko liburu bat prestatu zuten, EKT (Euskal Kultur Taldea) izenarekin. Parte Zaharrean zegoen arkitekto bulego batean pasa zieten makinaz liburua, doan.

16. Zalantzak argitzeko, Mitxelena eta Altube

- **Erref:** DON-214/020
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:58:29. **Bukatu:** 01:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Kontzeptu asko euskaraz nola jarri zalantzak izaten zituzten eta horretarako asko ikasi zuten. Mitxelenaren "Fonética histórica vasca" buruz ikasi zuen. Alde filologikorako ondo, baina ez zuen balio gaztelaniazko hitzak euskaraz nola jarri erabakitzeko. Horretan oso garrantzitsua izan zen Altuberena 1920tik 1955era bitartean. Jada zabaldua zeuden maileguak onartu eta euskaraz nola idatzi eta ahoskatu planteatzen zuen. Beraiek ere lan horretan hasi ziren.

17. Euskara batuaren onarpena

- **Erref:** DON-214/021
- **Iraupena:** 0:04:27. **Hasi:** 01:02:15. **Bukatu:** 01:06:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskara batua sortu zenean, hartutako erabakiak eztabaidarik gabe onartu zituzten. Arantzazuko biltzarrean egon ziren gazteenak ere beraiek baino nagusiagoak ziren. Beraientzat lanik handiena euskara batua ikastea zen. Haren inguruko eztabaidak egon ziren. Gerra aurreko euskaltzaletasunari lotuak

zeuden familietakoak ez ziren euskara batuaren aldekoak. Kasu jakin batzuk aipatzen ditu.

18. Elbira Zipitria ezagutu zueneko

- **Erref:** DON-214/022
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gogoan du behin amarekin mendi aldera zihoazela, Elbira Zipitria ikusi zutela ikastolako umeekin. Semeek euskara ona zerabiltela eta ea zer ikastolatara joaten ziren galdetu zion amari. Etxean egunerokoan euskara egiteak duen garrantzia.

19. Elhuyarren sortzaileak; Etxenikek euskara nola ikasi zuen

- **Erref:** DON-214/023
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:08:34. **Bukatu:** 01:10:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Elhuyarren sorreran Luis Bandres, Andoni Sagarna eta Jesus Mari Goñi izan ziren garrantzitsuak. Gerora beste hainbat sartu ziren: Juanjo Gabiña, bere anaia, Etxenike... Etxenikek ez zekien euskaraz. Uda batean euskaraz ikastea erabaki eta Oñatin eta Azpeitian egon zen. Urrian euskara klaseak ematen hasi zen bera ere.

20. Ikastoletarako materiala prestatzen

- **Erref:** DON-214/024
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:10:43. **Bukatu:** 01:14:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Hiazinto Fernandorena. Ikastolen inguruan tirabirak izan ziren garai batean. Hiazintok eta beste hainbat lagunek ikastoletarako argitaletxe txiki bat (Gordailu) jarri zuten Bergara kalean. Beraiei eskatzen zieten natur

zientzietako materiala prestatzeko. Gerora, ume nagusiagoentzako materiala prestatu behar eta gerra aurreko matematika liburuak begiratzen jardun zuen. Gerra aurreko termino batzuk gerora jarraitu egin zuten eta beste batzuek ez.

21. Ikasketak bukatuta, UZEIn hasi zen lanean

- **Erref:** DON-214/025
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:14:38. **Bukatu:** 01:17:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Urte askoan doan jardun zuten lanean, bai eskolak ematen eta baita Elhuyar taldean ere, materiala sortzen. Ikasketak bukatu eta segituan UZEIn hasi zen lanean, soldatapean. JAKINen gogoeta baten ondorioz sortu zela dio. JAKIN prosa modernoa lantzen ari zen; Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti, Torrealdai... Franco hiltzen zenean aldaketak etorriko zirela eta prestatu beharra ikusten zen.

22. Francoren heriotza osteko aldaketak, normalizaziorantz

- **Erref:** DON-214/026
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 01:17:46. **Bukatu:** 01:22:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Francoren heriotzarekin aldaketak etorri ziren. Batzuek bide politikotik jo zuten, euskararen normalizaziorako legedia sortzeko. Txilardegik normalkuntza terminoa zerabilen. Kontzeptuak berak ere aldaketa handiak izan ditu ordutik hona. Euskarak bere lekua behar zuela esaten zen, baina ez zen horri buruz hausnartzen, ez zen zehazten horrek zer esan nahi zuen. Hainbat kontzeptu edo ideia ez dira landu izan, esaterako, hizkuntzaren eta lurraldetasunaren arteko harremana. Benito Lertxundirekin gertatutako anekdota. Uzeiren lana garrantzitsua izan zen terminologia finkatzerakoan. Eztabaidak ere izan ziren.

23. Gordailu; Euskaltzaindiaren umeentzako hiztegia

- **Erref:** DON-214/027
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 01:22:20. **Bukatu:** 01:26:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Bergara kalean ikastoletarako materiala prestatzen zuen argitaletxea zegoen: Gordailu. Beraiei eskatu zieten materiala sortzeko. Orduan jakin zuten Salvador Garmendia ere antzeko kezkekin zebilela. Haren bitartez, eta Villasante tarteko zela, Euskaltzaindiak 8 urtera arteko umeentzako hiztegi bat sortzea erabaki zuen. Kritika handiak jaso zituen materialak, baina gaur egun erabiltzen diren hitz asko handik datoz. Erabiltzen diren hitzak jaso egin behar dira; erabiltzen ez direnak alferrik dira, nahiz eta ondo sortuak izan.

24. Matematika eta beste hainbat gaitako terminoak sortzen

- **Erref:** DON-214/028
- **Iraupena:** 0:07:42. **Hasi:** 01:26:53. **Bukatu:** 01:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Euskaltzaindiak 8 urtera arteko umeentzat hiztegia atera zuen, baina umeak adinez gora zihoazen. Orduan, Batzorde bat sortu zuten eta larunbat eguerdietan biltzen ziren Diputazioko ganbaran: Karlos Santamaria, Jose Migel Zumalabe, Jesus Mari Goñi eta bera. Iritzi-emaileak ere bazituzten, tartean, Mitxelena eta Sarasola. Euskaltzaindia barruan zalantzak sortu ziren, eurentako inor ez zelako filologoa. Baina euren lana sistematikoa zen. Adibide gisa, Jose Migel Zumalabe. Hiztegietan begiratzeaz gain, lantokietara joaten zen, benetan erabiltzen ziren hitzak ezagutzera. Orduko giroan batzuek mailegukiko zuten mesfidantza. UZEIren matematika hiztegiko termino asko orduko lanetik datoz.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com